



BARREN

TOKIKOM

Lagunen keinua Carlos Cebriani



irten eta begiratu!

etxeGain

BIZIGUNEA



4. SOLAIRUA
2 LOGELA - 2 BAINU
HORNITUTAKO SUKALDEA,
TERRAZA
140.000 €

WWW.ETXEGAIN.COM



grupo eibar
inmobiliaria

E: comercial@grupoeibar.com
San Francisco 32, bajo • 20870 Elgoibar
E: comercial@grupoeibar.com 943 31 66 11

689 66 08 01



AZKENENGO BI
ETXEBIZITZA, BEHEKO
SOLAIRUAN, TXOKOAREKIN
ETA GARAJERA SARBIDE
ZUZENAREKIN.
195.000 euroan hasita

OBRA FINANZIADA POR:

bankoa  Grupo
Crédit Agricole



 **GIPUZKOA
TURISMOA**

GIPUZKOA PASSPORT

Uda Gipuzkoan
gozatzeko
pasaporte



Jaso zurea Turismo Bulegoetan

www.gipuzkoaturismoa.eus

#VisitGipuzkoa

ALFREDO ETXEBERRIA, EAJ

“Euskarak dituen beharren aurrean, erabili, erabili eta erabili egin behar dugu”



◆ Nola eragin du koronabirusak zuen alderdian?

Gainerako jardueretan bezala, gelditu eta elkarbizitza ezohiko batera egokitu behar izan gara. Guztion arteko konpromiso eta erantzukizuneko ariketa izaten ari dela esango genuke. Bes-

talde, Udaleko ordezkariak soberan bete dute beraien agindua. Gaur egun oraindik ere erne egotea eskatzen duen egoera baten aurrean, ahulenak babestu dira, egoera diagnostikatu da eta eskumenen eta aukeren arabera jokatu da, epe laburreko sektore ekonomiko ahulenei lagunduz. Orain, osasun neurrien baldintzapean, kalte ekonomikoa eta horren ondorioak dimentsionatu behar dira etorkizun hurbilari ekiteko.

◆ Zein iritzi daukazu Euskaraldia ariketari buruz?

Covid 19aren aurrean adituek *test, test and test* gomen datu zuten gaixotasunaren hedapena kontrolatzeko. Euskarak dituen beharren aurrean, erabili, erabili eta erabili egin behar dugu. Beraz, konfiantza, konpromisoa eta aurrera, beldurrik gabe Euskaraldia eta gainontzeko ariketen bitartez. Norberak izan dezakeen Euskaraldiaren inguruko iritzia gutxienekoa da, erabili dezagun ariketa, helburuak du garrantzia-eta.

◆ Udazkenean egingo da bigarren edizioa eta oraingoan entitateek ere parte hartu dezakete. Hartuko duzue parte? Animatuko dituzue zuen militanteak?

Noski baietz. Ditugun baliabideak indartzeko asmoz, Euskaraldiak eskaintzen digun aukera erabiltzea nahiko genuke, ez alderdikideei zuzenduz soilik, herritar guztiak animatuz bai zik aurtengo Euskaraldian parte har dezaten. Eskerrik asko aurrez.

◆ Alderdi barruan baduzue euskara sustatzeko irizpiderik?

Oinarrizko ideiak hauek dira: eskuzabaltasuna eta barkamena, gorrotoa eta gorroto garaia amaitzeko, euskaldunen arteko batasuna sendotasunez eta ebazpenez, gure hizkuntzaren eta bereizten gaituen ezaugarri nazional guztien laborantzara sakona, eta penintsulako eremu zabaletan parte hartzea, betiere gure askatasuna bermatuta badago, zioen bere garaian Joseba Andoni Agirre Lehendakariak. Osotasunean bat dator gure gaur egungo irizpide, konpromiso eta erabakiekin.

JOSE LUIS IBARTZABAL, EH Bildu

“Euskara periferiatik erdigunera ekarri behar dugu eta Euskaraldia horretarako tresna izan behar da”



◆ Zer eragin izan du COVID-19ak zuen alderdian?

Gizarte osoan bezala, eragina izan du politikan eta baita erakunde eta alderdian ere. Egiteko moduak aldatu dira, bizitzarekiko pertzepzioa aldatu da, eta lehentasunak berriz definitu

behar ditugu. Zerbait argi utzi badu pandemia honek gizarte antolatua garrantzia izan da, zerbitzu publiko on batzuk izatea lehentasunezkoa dela, eta gizarte aurreratua izan nahi badugu, gertuko hori zaindu behar dugula.

◆ Udazkenean Euskaraldiaren bigarren edizioa izango da. Zer iritzi daukazu ariketaren gainean?

Euskaraldia ariketa kolektibo bezala ulertu behar dugu, gizartean kontzientzia sortzeko. Aurreko ariketa norbanakoena izan zen, eta gu guztiok ispiaren aurrean jartzeko balio izan zuen, norbere hizkuntza ohiturak esparru kontzientera ekartzeko. Zintotasunez egiten bada, erabileran eragin positiboa izan behar duela uste dut. Iruditzen zait asko daukagula denok egiteko euskararen erabileran. Ezagutzaren eta erabileraren artean horrelako ezberdintasuna badago, zerbaitegatik da, eta denok egin beharko genuke irakurketa kritikoa. Ariketa ona da, beti ere jarraipena ematen bazaio urtean zehar bestelako dinamikekin. Euskara periferiatik erdigunera ekarri behar dugu, eta Euskaraldia horretarako tresna izan behar da.

◆ Hartuko duzue parte aurten?

Bai, parte hartuko dugu alderdi politiko gisa. Gutako askok aurreko ariketan parte hartu genuen, gure helburu nagusien artean dagoelako hizkuntza zaintzearena, eta, aurten ere, parte hartuko dugu. Militanteak ere animatuko ditugu parte hartzera.

◆ Baduzue alderdian euskara sustatzeko irizpiderik?

Gure alderdian badago euskararen erabileraren kontzientzia. Zalantzarik ez da gure alderdia gizartearen ispiu dela eta ezagutza mailan badagoela zailtasunik. Baina guzti hori kontzienteki jartzen da mahai gainean. Elgoibarko EH Bilduren kasuan, gure bilerak euskaraz dira, beharrezkoa denean ele bieran eginez, baina euskara lehenetsiz. Erabaki organoetan sortzen dugun barneko dokumentazio guztia euskaraz da, eta kanpora begira egiten dugunean elebiduna da dokumentazio hori, hala behar balitz, beti ere euskarari lehentasuna emanaz.





Filmak eta zenbakiak

arren, edozein txunditzeko moduko gaitasun intelektualak zituen pertsona honek.

Filmak aurrekoarekin zerikusi gutxi izan arren, antzerako pertsonaia bat agertzen da, hamarkada bat beranduago (1997) egindako bel-durrezko zientzia fikziozko *El Cubo* (gaztelaraz) filmean. Kazan izeneko pertsonaiaren kalkulurako gaitasun harri-garria ezinbestekoa suertatuko da: zenbaki handi xamar bat lehen edo lehen baten potentzia den buruz erabakitzea ez da ahuntzaren gauerdiko ez-tula.

2015eko *El hombre que conocía el infinito* (gaztelaraz), Srinivasa Ramanujan matematikari indiarren bizitzan oi-

narritutako filma da: 1887an India hegoaldeko familia pobre batean jaio eta Cambridgeko unibertsitatean amaitu zuen jenio "analfabetoa". Filmean jasotzen den pasarte bat dakar Hardy matematikariak: "Gogoratzen dut behin nola joan nintzaion bisitan Putneyn gaixorik ohean zetzala. 1729 zenbakidun taxi batean joan nintzen eta komentatu nion grazia handirik gabeko zenbaki bat iruditzen zitzaidala eta espero nuela hori seinale txar bat ez izatea. 'Inolaz ere ez', erantzun zidan, 'oso zenbaki interesgarria da; bi zenbakiren kubo moduan, bi modu desberdinetan idatz daitekeen zenbakirik txikiena da'". Arrazoi zuen, nola ez: eta Taxicab zenbakiak deitzen dira egun.

Tabernatik ateratzerakoan zotzak lurrera erori zitzaizkienean bat-batean jakin zuen Raymondek zehazki 256 zeudela. Zenbatu gabe. Kim Peek izeneko savant autista estatubatuarrean oinarrituta sortu zuten Dustin Hoffmanek 1988an *Rain Man* filmean interpretatutako pertsonaia. Eguneroko zereginetarako arazo handiak izan

"Bat-batean jakin zuen Raymondek zehazki 256 zotz zeudela. Zenbatu gabe"



BARREN

ARGITARATZAILEA:



ELGOIBARKO IZARRA
Euskarazko Topagunea

Aita Agirre Kulturgunea, 3, 3. ezk. - 20870 ELGOIBAR

943 744 112

Publizitatea: 943 743 704

barren.publi@elgoibarkoizarra.eus

barren@elgoibarkoizarra.eus

www.barren.eus

BARREnek bere gain hartzen du espazio arazoengatik iragarkiak lekuz aldatzeko eskubidea. BARREnek ez du bere gain hartzen Iritzia, Hitz eta klik eta eskutitzak ataletan adierazitakoen erantzukizunik. **KOORDINATZAILEA** Ainhoa Andonegi **KAZETARIAK** Ainhoa Andonegi, Asier Orbea, Ainara Argoitia **HIZKUNTZA ARDURADUNA** Ainara Argoitia **PUBLIZITATEA** Leire Rubio **MAKETATZAILEA/DISEINATZAILEA** Zalaoa Arnaiz **ATARI DIGITALEKO ARLO TEKNIKOAREN ARDURADUNA** Aitor Lauzirika **ADMINISTRARIA** Amaia Arrizabalaga **KOLABORATZAILEAK** Ibon Serrano, Eire Vila, Manu Sanchez, Iosu Juaristi, Iñigo Lamelas, Edurne Izagirre, Paula Heras, Enetz Ezenarro, Ane Astiazaran, Irati Agirreazaldegui, Jone Olaizola, Juan Luis Mugertza, Izaro Etxegibel, Iñigo Otaño, Iñaki goitia, Jose Ramon Cabrera, Alex Segade **INPRIMATEGIA** Gertu Koop.E. **TIRADA** 4.885 ale **LEGE GORDAILUA** SS-1.038/92 ISSN 1138-1855

BABESLEA:



LAGUNTZAILEAK:



Gipuzkoako Foru Aldundia

BARRENEK ez du bere gain hartzen IRITZIA eta ESKUTITZAK ataletan adierazitako enantzikizunik. Eskutitzak ondo identifikatuta egon behar dute. Ez ahaztu izen-abizenak, NANa eta telefonoa jartzea. Bidali helbide honetara: barren@elgoibarkoizarra.eus

▶ EAJ-REN ESANETAN, EZ OMEN DAGO FROGATUTA PEDRO MUGURUZA FRANKISTA ZENIK

EHBilduk Pedro Muguruzaren etorbideari izena aldatzeko mozioa aurkeztu zuen osoko bilkuran asteazkenean. Aspalditik eskatu izan dugu Elgoibar 1936 taldeak, ezin baitugu Falangeko kide baten kalea eduki Elgoibarren 2020. urtean. Ez hori bakarrik: 2020. urtean, Falangeko plaka erraldoi bat daukagu herrian, 2012an kenduko zutela esan arren, ez dute eta beraien hitza bete. Eta hor dago Morcaikoko gurutzea bera ere, Carlos de Borbon y Orleans printzipe frankista espainiarraren eta bertan hildako errekeen omenez eraikia izan zena. Ez dugu sekula ulertu zein den egiazko arrazoa Pedro Muguruza kalearen izena ez aldatzeko. Beste herri askotan egin dira aldaketa horiek, baina badi-rudi beste arrazoiren bat egon behar dela guzti honen atzean, ez delako ulergarria 2020. urtean Falangista ospetsu baten izena edukitzea etorbide batek Elgoibarren. Baina sekulako harridura eragin diguna, EAJren hitzak izan dira: "Pedro Muguruza frankista zenik ez dago frogatuta". Izugarria iruditzen zaigu hori esatea; gezurra esatea da hori. Hona hemen Pedro Muguruzari buruzko datu batzuk, baina Frankista zela aski frogatutako gauza bat da: Pedro Muguruza, askok horrela pentsatu arren, ez zen Elgoibarren jaio.

1893ko maiatzaren 25ean jaio zen Madrilan. 1936ko gerra lehertu zenean "Altxamendu Nazionala bultzatu zuen eta Falangera afiliatu zen. Francorekin oso harreman ona zuen", dio Francoren fundazioaren webguneak. Erorien Haraneko arkitektoa izan zen Pedro Muguruza. Falangeak Arkitektura Zuzendaritza Nagusiko buru izendatu zuen. 1938an, Alemania Nazian, enbaxada espainiarra eraikitzeke aholkatu zituen Walter y Johannes Krüger anaiak Berlinen. Gobernuak aholkulari nazional izendatu zuten eta 1943an Espainiako Gorteetako prokuradore ere bai. Pedro Muguruza Elgoibarko adopzio- seme izendatu zuten 1943an, eta seme kutun 1946ko abuztuaren 8an.

Frankista ez zela dio EAJk, ez omen daukate frogarik. 2010ean eginiko bilera batean eman genizkien datu hauek. Ez zaizkie argiak irudituko beharbada?

Elgoibar 1936 taldea

▶ UZTAILEAN ETA ABUZTUAN MURRIZKETAK OSASUN ARRETAN

Mendaroko Osasun Zentroak murrizketak jasango ditu uztailean eta abuztuan lehenbiziko aldiz. Astean hiru egunetan eskainiko dute zerbitzua eta bestelako bi egunetan Elgoibarren zentralizatuko da osasun arreta. Hori gutxi ez balitz, irailean nola gauzatuko den osasun arreta oraindik zehaztu gabe dago eta zerbitzua eteteko arriskua hor

dago. Osakidetzan, Mendaroko Udalean bezalaxe, EAJ alderdiak agintzen du. EH Bildutik murrizketa hauek salatu nahi ditugu eta Osasun Zentroak Mendaron ematen duen zerbitzua bermatzea eskatzen dio alkateari, herriaren alde eta ez alderdiaren alde.

Mendaroko EH Bilduko Udal Taldea

▶ IKASTOLA EGUNEKO ZOZKETA

COVID-19aren ondorioz ekainaren 13ko Ikastolaren eguna bertan behera utzi behar izan genuen. Horren ondorioz, egun horretan egin behar genuen zozketa atzeratu egingo da azaroaren 6ra. Zerbaki sarituak Ikastolaren web orrian argitaratuko dira egun horretan bertan.

Ikastola Eguneko antolakuntza



DESKONTU HANDIAKI!

- Haurren izaretan
- Sehaska-koltxoietan
- Haurrentzako iragarki laburretan...



Etorri eta ikusi umeentzako produktueta ditugun deskontuak.

San Roke kalea, 20 - Elgoibar - 943 744 457 - 685 756 978 - www.textillagunak.com

IMH sariak banatu zituzten joan zen astean heziketa zikloetako ikasturte amaierako ekitaldiaren barruan

Heziketa Zikloetako ikasturte amaierako ekitaldia egin zuten joan zen astean IMHn, eta ekitaldiaren barruan IMH Sariak banatu zituzten. IMHtik jakinarazi dutenez, urte akademiko "desberdin eta konplexu" baten amaiera izan zen ekitaldi hau: "Urte honetako egoera zaila izan arren, merkatu profesionalera irten eta etapa berri bati ekiteko ilusioz beteta dauden gazteen promozio berri honek dena eman du dituzten erronkei aurre egiteko", esan dute agurru berri dituzten ikasleez. Guztira 154 ikaslek ekingo diote etapa berriari. 102 ikaslek Lantotiko Prestakuntza egin dute, Duala 32k eta Espezializazioa 20k.

IMH sari bereziak

Osasun-alertak sortu duen egoera ekonomiko konplexua dela-eta, ikasle aipagarri eta elgoibartarren aitortzak mantendu dituzte soilik aurten. Igor Iriondo Salegi elgoibartarrak jaso du Ikasle Aipagarriaren Saria. Erdi Mailako Mantentze-Lan Elektromekanikoko ikasle honek praktikak atzerrian egitea erabaki zuen, baina Covid-19 zela-eta hemen amaitu ditu ikasketak. El-



goibarko Udalaren oroigarria jaso zuen. Ikasle elgoibartar aipagarriaren saria ere berak eskuratu du. Hori dela-eta, antolatzaileek bigarren espedienterik onena saritzea erabaki dute, "ahalik eta ikasle nabarmen gehienek ahalegina txalotzea delako". Bi sari eman behar izan dituzte bigarren eta hirugarren espediente onenen arteko berdinketarik: Zestoako Jon Txapartegi eta Orioko Bertin Trillo izan dira sarituak. Txapartegik, Iriondok bezala, Erdi Mailako Mantentze Zikloa ikasi du, eta Trillok Mekanizazioko Erdi Mailakoa. Txankakua Merkataritza Elkartek emandako erosketa bonoak jaso dituzte saritzat.

Normaltasun berriko estreinako kontzertua eman dute Jon Gurrutxagak eta Urbil Artolak



Jon Gurrutxagak eta Urbil Artolak Elgoibarren eman zuten joan den barikuan konfinamendu osteko lehen zuzeneko emanaldia, eta leku berezia aukeratu zuten itzulerako kontzerturako: Makina Erremintaren Museoa. Normaltasun berrira egokitu zuten emanaldia: koronabirusaren eraginez, 35 laguneko muga jarri zuten, ikus-entzuleak musukoa jantzita eta elkarren arteko segurtasun tarteak gordeta entzun behar izan zuten kantaldia. Sarrerak bi egunetan agortu ziren, eta antolatzaileek bigarren kontzertu baterako aukera aztertzen ari dira irailerako. Interesa duten herritarrek 943 748 456 zenbakira edo museoa@museoa.eus helbidera idatzi dezakete eta izena hartuko diete.

Duala 40 urte ikurriña Everestera eraman zuen espedizioa omentuko dute domekan

1980ko uztailaren 6an jarri zuten estreinakoz ikurriña Everestean, eta munduko gailurrik altuenera iritsi ostean, euskal espedizio hura omendu zuten Arraten. 40 urte pasatu dira ordutik, eta Gu ere Bai ekimenaren barruan, berriz omenduko dituzte domekan espedizio hartako kideak. Arratetik Kalamua mendira joango dira lehenik. Goizeko 9:00etan abiatuko dira mendizaleak Arratetik, eta 10:00etan batuko dira denak Kalamuan. 13:00etan Arraten bertan izango da omenaldia. .

26.800 euroko dirulaguntza emango dio Mendaroko Udalak Elgoibarko Izarrari, 2020an bi egitasmo gauzatzeko

2020rako lankidetzaz hitzarmena sinatu zuten astelehenean Mendaroko Udalak eta Elgoibarko Izarra Euskaltzaleon Topaguneak. Iñaki Arregi Mendaroko alkateak eta Iñaki Konde Elgoibarko Izarrako presidentek sinatu zuten hitzarmena, zeinaren arabera Elgoibarko Izarrak 26.800 euro jasoko dituen aurten BARREN aldizkarirako eta udalekuetarako. Euskara Saitetik bideratu du dirulaguntza hori Mendaroko Udalak. BARREN aldizkariak 14.800 euro jasoko ditu, eta gainerako dirua, 12.000 euro, udalekuak antolatzeke izango da. Hitzarmena betetzen dela zaintzeko ardura Mendaroko Udalaren Euskara Batzordearena izango da. Hitzarmena sinatu ostean, Elgoibarko Izarrako presidente Iñaki Kondek eskerrak eman dizkio Mendaroko Udalari emandako babesagatik, eta aurrerantzean ere lankidetzan jarraitzeko borondatea eta konpromisoa agertu dizkio.



Bertso Eskola jarri nahi du martxan Elgoibarko Udalak

Elgoibarko Udalak ahozko komunikazioa bertsoaren bidez lantzeko egitasmoa jarri zuen abian 2004an Gipuzkoako Bertsozale elkartearekin, Ikastolarekin eta Herri Eskolarekin lankidetzan. Urtez urte, LH4ko eta LH5eko 250 ikasle inguruk parte hartu ohi dute bertsozaintza lantzen eskoletan, eta horri jarraipena eman nahian, bertso-eskola biziberritu nahi du Udalak. Elgoibarko Izarrak 2011n jarri zuen martxan Bertso Eskola, baina 2016an bukatu zuen ibilbidea, ikasturte hartan haur gutxi eman zutelako izena. Hurrengo urteetan ere gutxi agertu zuten interesa. Udaletik beste saiakera bat egin nahi dute orain, eta LH3tik DBHra arteko umeentzako eskaintza zabaldu dute. Ikasle taldeak osatuz gero, saiok urrian hasiko dira, eta astelehenero emango dituzte eskolak, 18:00etan hasita, ordubetez. Bertso-eskolarako aurre matrikulazioa uztailaren 22ra arte egin daiteke. Izena emateko: Udalaren Euskara Saila 943 744 366 / euskara@elgoibar.eus

Lau emakume eta bost adingabe artatu dituzte 'Elgoibarren Gertu' zerbitzuan

Alarma egoeran indarkeria matxista jasateko arriskuan zeudenentzako Elgoibarren GERTU zerbitzua ixtea erabaki du Elgoibarko Udalak. Zerbitzua indarrean egon den bitartean lau emakume artatu dituzte, indarkeria-gertakariak jasan dituztelako konfinamendu garaian. Seme-alaben arazoei ere erantzun diete, eta guztira bost adingabe artatu dituzte. Telefono bidez eta online eman dute arreta martxoaren 14tik joan zen astera arte. Normaltasun berrira iritsita, Udalak zerbitzua etetea erabaki du, baina Udaleko Gizarte Zerbitzuak zabalik daude berriro, eta 943 741 050 telefonoan arreta ematen jarraituko dute (7:00etatik 15:00etara). Gogoratu beharra dago Gizarte Larrialdietarako Koordinazio Zerbitzua urteko egun guztietan eta 24 orduz dagoela martxan, Gipuzkoan sortzen diren gizarte larrialdi egoerei berehalako arreta emateko. Telefonoa: 943 22 44 11 (7:00etatik 21:00etara), 112 SOS deiak zerbitzuaren bidez (21:00etatik 7:00etara) – E-posta: sfus@gipuzkoa.eus.

Altzolan dituen bi etxebizitza salgai jarri ditu Elgoibarko Udalak

Altzola auzoko Karmen plazan dituen bi etxebizitza saltzeko prozesua hasi du Udalak. Lizitazioaren gutxienerako tipoei eta besteren zatearen oinarriko prezioei zenbatekoak gorantz hobetu ahal izango dira, baina ez dira onartuko zenbateko horretatik beherako eskaintzak.

- ◆ 1. lotea: 1. zenbakidun etxebizitza, Karmen plazako 3. zenbakian, 3. eskuinean: 41.751,02 euro
- ◆ 2. lotea: 2. zenbakidun etxebizitza, Karmen plazako 5. zenbakian, eskuineko etxabearen: 38.792,05 euro

Proposamenak Herritarren Arreta Bulegoan aurkeztu behar dira irailaren 10a baino lehen. Etxebizitzaren zozketa irailean egingo da. Informazio gehiago Herritarren Arreta Zerbitzuan.

'Elgoibar on egin' kanpainako ostalaritza bonoak telematikoki erosi daitezke


Elgoibarko Udalak herritarrentzako merkataritza bonoen bigarren kanpaina eta ostalaritza bonoen lehen kanpaina jarri zuen abian ekainaren 17an, tokiko kontsumoa bultzatu eta Elgoibarko familien ekonomia arintzen laguntzeko. Merkataritzako 3.000 bonoak agortu egin dira, baina ostalaritzako *Elgoibar On Egin* bonoak telematikoki saltzen jarraitzea erabaki du Udalak, izan ere, salmentan ipinitako 3.000 bonoetatik 1.247 oraindik saltzeke zeuden oraindik martitzenean. Bonoak erosteko baldintzak aldatu egin dituzte, eta orain, pertsona bakoitzak 12 bono eskuratzeko aukera izango du, eta aldez aurretik bonoak erosi dituztenek, beste 10 bono erosteko aukera izango dute. Honez gain, ordutegia erabat malgutuko da, eta bonoak edozein ordutan erosi ahal izango dira. Webgunea zabalik egongo da bonoak agortu arte. Hori bai, ezinbestekoa izango da eroslea El-



goibarren erroldatuta egotea. Erosleek bonoak etxean jasoko dituzte korreo zertifikatu bidez eta abuztuaren 31ra arte gastatu ahalko dira. Kanpaina honetan 22 taberna eta jatetxek eman dute izena: Ametsa, Ibaiondo, Aterpe,

Malape, Belaustegi, Derry, Doner Kebap, El Gautxo, Gabi Jatetxea, Iturri, Jai Alai, King Kong, Kultur Kafea, Lanbroa, Maala, Mahats, Otzak Kafetegia, Salento, Olaso Jatetxea, Sigma Jatetxea, Txarriduna eta Tantaka.

Ludotekako argazki lehiaketak baditu irabazleak



Udaberriko loreei buruzko argazki lehiaketa antolatu du Elgoibarko Ludotekak, eta aste honetan eman dute antolatzaileek irabazleen berri. Guztira 42 argazki aurkeztu dituzte lehiaketara.

Ibon Basurtok (HH5) irabazi du sari nagusia, bat-bateko kamera bat, San Roken ateratako argazki bati esker. Argazkiaren originaltasuna, lorearen berezitasunak eta kolorea hartu dituzte kontuan antolatzaileek. Ludotekako hezitzaileek



eta aditu batek osatu dute epaimahaia.

Ikuslearen saria, berriz, Ines Izagak (LH1) eskuratu du, Sallobenten ateratako argazki bategatik. Haririk gabeko entzungailu bat jasoko du saritzat. Lehiaketara aurkeztutako argazki guztiak Kultur Etxearen pareko eraikinean dagoen lokal bateko erakusleihoan egon dira ikusgai, eta herritarrek gustukoeneri botoa emateko aukera izan dute, Whatsapp bidez. Ekainaren 22tik 26ra egon da botoa emateko aukera eta 200 boto jaso dituzte. .

Uztailean eta abuztuan hiru egunera mugatuko dute azkenean mediku-zerbitzua Mendaroko anbulatorioan

Herriarrek azken asteotan egindako presioak eta Mendaroko Udalak berak egindakoak atzera egitera behartu dute Osasun Saila, hein batean. Izan ere, ESI Debabarrenatik jakinarazi berri dute uztailean eta abuztuan lehen mailako osasun-arreta emango dutela Mendaroko anbulatorioan, astean hiru egunetan, aurrez hitzordua eskatuta (943 032 610). Alegia, azkenean, erizainak ez ezik medikuak ere kontsulta pasatuko duela uztailean, astean hiru egunez, eta abuztuan, bi egunez itxiko dutela Mendaroko anbulatorioa, bost egunez beharrean. Gainerako egunetan Elgoibarko anbulatorioan jasoko dute zerbitzua. Nolanahi ere, zerbitzua eskatu egingo da, Mendaroko anbulatorioan beti eman izan dutelako orain emango dutena baino zerbitzu hobea. Arnasa hartzeko ezina edo COVID19ari lotutako sintomak dituzten pazienteak Elgoibarko osasun zentroan artatzen jarraituko dute, esan bezala, udako hilabeteetan, arreta sektorizatzea eta bereiztea erabaki dutelako udako Lehen Mailako Arretako Unitateetan.

Era berean, eta joan zen asteko oharrean ESI Debabarrenak berak zioen moduan, uztailaren 1etik 24ra bitartean programatutako erizaintza eskariari erantzungo diote Mendaroko anbulatorioan, 8:00etatik 13:00etara. Larrialdiko arreta, bestalde, Mendaroko Ospitaleko Larrialdi Zerbitzuetan emango dute, eguneko 24 orduz. Bestalde Torrekuko EAG zabalik egongo da udan, arnas sintomak (COVID-19ari lotutakoak) nahiz arnas sintomarik ez dituzten pazienteei arreta emateko. Orduetgia honakoa izango da: 17:00etatik 8:00etara lanegunetan, eta 24 orduz zapatu, domeka eta jaiegunetan. Mendaroko EH Bilduk orain anbulatorioa bi egunez itxeta xarretsi du eta "herriaren alde" egiteko eskatu dio alkateari, "eta ez alderdiaren alde".

Elgoibarko anbulatorioko murrizketen kontrako manifestazioa egingo dute astelehenean

Bi astean behin biltzen dire Duintasuna-Gaurgeroa taldeko pentsiodunak 1.080 euroko gutxieneko pentsioa aldarrikatzeko, baina oraingoan, manifestaziorako deia egin dute, Elgoibarko Osasun Zentroan izan diren murrizketen kontra. "Orain arte 24 orduko zerbitzua ematen zuten Elgoibarko Osasun Zentroak, eta orain arratsaldeko 17:00etan itxi egiten dute", esan dute manifestazioaren deitzaileek. Era berean, salatu dute lehen arretako zerbitzuaren gehiengoa telefono bidez ematen ari direla, eta medikuek ez dituztela pazienteak ikusi ere egiten kasu askotan. Gainera, adinekoak telefonoz ez direla oso ondo moldatzen esan dute, eta haien zainbestekoa dela medikuarengana joatea. Koronabirusaren ondorioz hartu zuten Osasun Zentroa 17:00etan itxi eta kontsulta gehienak telefonoz egiteko erabakia, baina Duintasuna-Gaurgeroa taldekoak kezkatuta daude, murrizketa hau denbora luzerako izango dela uste dutelako. Pentsiodunen taldeko kideek Elgoibarko Udal Gobernuari ere eskatu nahi diote gai honetan hartu dezala bere ardura, eta Elgoibarrek merezi duen osasun zerbitzu baten alde lan egin dezala. 19:00etan izango da manifestazioa, Kalegoen plazan hasita. Norberak bere maskara eraman beharko du.


Elgoibar 1936 taldearen ustez "ulertezina" da Elgoibarko EAJ-k esan izana Pedro Mugurutzak frankista izan zela ez dagoela frogatuta

Pedro Mugurutzak etorbideari izena aldatzearen aldeko mozioa aurkeztu zuen joan zen asteko Osoko Bilkuran EH Bilduk, baina mozioak ez zuen arrera egin, besteak beste, EAJ-k kontra bozkatu zuelako. Ezezko botoaren arrazoiaren artean EAJ-k adierazi zuen Pedro Mugurutzak arkitektoak Francoarentzat lan egin zuela, baina ez dagoela frogatuta bera ere frankista izan zenik. Memoria historikoaren alde lanean diharduen Elgoibar 1936 taldeko kideentzat "ulertezina" da EAJ-k hori esan izana: "Izugarría iruditzen zaigu hori esatea; gezurra esatea da hori". Taldeko arduradunek hainbat datu eman dituzte Pedro Mugurutzak frankista zela argudiatzeko, eta esan dutenez, datu hauek guztiak helarazi zizkieten Elgoibarko EAJri 2010ean eginiko bilera batean.





Zuen kezak, galderak edo txaloak bidaltzeko: barren@elgoibarkoizarra.eus - 943 744 112



Ermuaranbide kalean arrisku handia sortzen da han kokatuta dauden enpresen ondorioz:

"Ia egunero izaten ditugu horrelako irudiak Ermuaranbide kalean. Enpresa batzuk daude errepide ondoan eta kamioiek ez daukate aparkatzeko lekurik. Zama-lanak egin behar dituztenean errepidean bertan geratzen dira, eta horrek arrisku handia sortzen du oinezkoentzako. Egunen batean ezbeharren bat gertatuko da, eta berandu baino lehen, neurriren bat hartu behar dela iruditzen zaigu". Hirigintza Saitetik esan dute inguru hori ordenazior kanpo dagoela eta enpresa horiek ixtean edo lekuz aldatzean ezin izango da bertan inongo jarduerarik kokatu".



Olibondo bat kendu dute Erretsundi auzoan:


"Erretsundi auzoan bizi naiz betidanik, eta orain gutxira arte lorategi bat geneukan etxe aurrean. Lehenik palmondo bat egon zen bertan, ondoren arrosak eta azkenik, olibondo bat. 20 bat urte izango zituen olibondo honek, eta osasuntsu zegoen, baina egun batean, moztu egin zuten auzotarrei azalpenik eman gabe. Jakin nahi nuke zergatik erabaki duen Udalak hori egitea". Udaletik azaldu dutenez, Udalak ez du eman olibondo hori kentzeko agindurik. Lorezaintzako enpresak egingdako akats bat izan dela argitu dute agintariek, eta esan dutenez, hasierako momentutik prest agertu dira akats hori konpondu eta beste zuhaitz bat landatzeko bertan.



Trenbide kalean solte eta erdi apurtuta daude baldosa batzuk:

"Trenbide kalean oso arriskutsu daude baldosa batzuk, hondoratuta eta apurtuta. Oinezkoek hanka sartu eta estropozu egiteko arriskua dago. Inork min hartu baino lehen konpontzea komeni da". Hirigintza Saitetik esan dute konponduko dutela ingurune hori.

Belaustegi jatetxetik irtetean ia errepideraino joan behar da autoarekin, Markina aldetik autorik datorren ikusteko: "Aia-stia auzoan, Belaustegi jatetxetik Elgoibar aldera hartzeko bidegurutzea oso arriskutsua da. Ez da ikusten Markina aldetik autorik datorren, errepide erdian egon arte. Iruditzen zaigu ispilu bat jarrita erraz konpondu daitekeela arazoa, eta arriskua asko txikituko litzatekeela". Udaleko Hirigintza Saitetik jakinarazi dute ispilu bat jarriko dutela bidegurutze horretan.



Begoña Altuna Leyaristi

2020ko maiatzaren 6an hil zen, 85 urte zituela.
Hileta elizkizuna astelehenean, uztailaren 6an, izango da,
19:00etan Elgoibarko Bartolome Deunaren eliz-parrokian.
Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak,
bai eta hileta elizkizunetara agertu izana ere.



Begoña Ansola Egia

"Kartero"

2020ko uztailaren 1ean hil zen, 92 urte zituela.
Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak,
bai eta hileta elizkizunetara agertu izana ere.



Aitor Juaristi Gomez

**Zoriontasunak beti ditu bere txokoak
eta zuk Abaigarren
aurkitu zenuen horietako bat.**

Abaigarko lagunak



Aitor Juaristi Gomez

2020ko ekainaren 30ean hil zen, 39 urte zituela.

Gazte, ausart eta libre.

Hala gogoratuko zaitugu beti kuadrillako lagunek.

Lagunari kantuan

Cebri day musika topaketa antolatu dute gaur iluntzerako Mendaron, Carlos Cebrian musikari hilberriaren omenez. Sinuöse kultur elkarteko lagunak eta Gararock jaialdiaren sustatzaileak antolatu dute topaketa, Mendaroko Udalaren laguntzarekin, eta Azpilgoetako Santakuruzko parkean izango da, 19:00etatik aurrera. Aire librean izango dira kontzertuak, baina antolatzaileek sarrerak banatuko dituzte, doan, parkeko edukiera zaintzeko [100 laguneko edukiera zehaztu du Udalak]. Koronabirusagatik ezarritako babes neurri guztiak hartzeraz deingortuta daude antolatzaileak eta arduraz jokatzeko eskatu diete joango diren guztiei.

- AINARA ARGOTIA -

Erreferente bat izan da Mendaron kultur zaleontzat, eta bereziki musika zaleontzat. Oso pertsona lagunkoa zen Cebri, mugitua, eta oso maitea genuen". Ina Iriondo lagunaren eta garai batean taldekide izandakoaren hitzak dira. Estimaten zuten Carlos Cebrian lagunak eta estimaten zutelako antolatu dute gaur iluntzerako Cebri day musika topaketa. Elgoibarko eta Mendaroko lagun musikazaleak. Ekainaren 3an hil zen Cebrian, 48 urte zituela, eta gaur, haren musika ibilbidearen errebasoan egingo dute lagunak Azpilgoetan, Santa Ku-

ruzko parkean. "Omenaldi antzeko bat izango da, gozatzeko eguna. Hunkituko gara, seguru, berezia izango delako, baina batez ere, disfrutatu egingo dugu, musikaz eta lagun artean, berak nahiko lukeen moduan", gehitu du Iriondok.

Azpilgoetan izango da topaketa, Cebrik herritar asko musika zaletu zituen tabernatik gertu. Horixe izan zuen eginkizunetako bat: musika eman eta zabaltzea. Azpilgoetako Ormola tabernan zerbitzari jardun zen bost bat urtean diskoak jartzen ere aritu zen, eta Mendaron askok dute oraindik gogoan Cebriren kantutegia. 90eko hamarkadako hasierako urte haietan eskutik eskura ibili zen cassette-a, Carlos Cebrianek eta Asensio Artetxek osatutakoa, duela gutxi eman du argitara Ina Iriondok berak Interneten, playlist modura. "Garai hartan, Mendarorako taberna ezin modernagoa zen Ormola, eta asko zor diegu orduko jabeei. Mobida guztiak leku baten hasten dira, eta gurea han hasi zen. Bilgune bat zen herriko gazteontzat eta hemen sasoi hartan entzuten ez ziren kantuek entzuten genituen han. Tabernako jabearen anaia bat, Imanol Etxeberria, Londresen bizi zen sasoi hartan eta handik ekartzen zituen diskoak. Luxu bat zen guretzat", gogoratu du Iriondok. Garai hartan Euskal Herrian entzuten ez ziren kantuek entzuten zituzten Ormolan. "Aurrea hartzen genuen, anaiari esker. Espainian ere entzuten ez ziren kantuek jartzen genituen tabernan, eta handik gutxira Radio3 irrati-katean hasten ginen entzuten", gehitu du Aitor Etxeberriak, garai hartan Ormola tabernaren jabea zenak. Musika jartzeko orduan "barra libre" zeukan Cebrik Ormolan, "zalea zen, oro har arterako". Musikagile moduan egindako ekarpenagatik zuten ezaguna herrian eta inguruetan, baina marrazten ere ari-



Arg.: Ina Iriondo

tzen zen, eta Guruzpe Kultur Elkarteak argitaratutako aldizkarietan ere argitaratu izan zituen marrazkiren batzuk. Musikan, Lili Moon izan zen bere aurreneko taldea. Joe Jimenez (baxua), Josune Arriola (abeslaria), Mikel Fernandez (gitarra), Josu Gallastegi (baterian) eta berak sortu zuten Lili Moon. Punk musika egiten zuten. Lili Moonek formazio aldaketak izan zituen, eta formazio bakoitzarekin musika estiloa ere aldatu zuen. Arriola eta Fernandez izan ziren taldea lagatzen lehenengoak eta Leire Alberdi batu zen taldera, teklatuarekin. Pop-erako joera hartu zuten, eta Ormolan entzuten zituzten kantuetatik gertuago zeudenak sortzen hasi ziren. Lili Moonen azkeneko fasea Gallastegik Madrilerako bidea hartu ondoren hasi zen, Donostian ikasketak amaitu berri zituen Ina Iriondo taldera batu zenean. 95eko uda zen. Leire Alberdi jarri zuten batera-jole eta Iriondo bigarren gitarra-jole eta musika noise-a sortzen hasi ziren. Maketa ere grabatu zuten, eta 96ko santanen bueltan, uztailaren erdialdera, estreinako zuzenekoetako bat eman zuten Trinitate elizan, Trinipop deitu zutena. "Berezia izan zen kontzertua. Donalek eman zuten baimena kontzertu hartarako [Angel Bazterretxeak, Mendaroko abade izandakoak. (Mutriku 1936 - Mendaro 2019)]. Lili Moon taldearen biltokia ere Azpilgoetako abadetxean zegoen. Asko zor diogu Donali Mendaron; kultur ekintzetarako beti geneukan haren argi berdea", gogoratu du horren harira Iriondok.

Desegin zuten taldea Lili Moondarrek, baina musikari lotua jarraitu zuen Cebrik. Uler 600 proiekturako kolaboratu zuen, Munlet taldearen hastapenetan ere parte hartu zuen eta 2008. urte aldera Andra kan proiektura batu zen Iban Urizar, Patxi Zabaleta, Andoni Mujika eta Jon Gurrutxagarekin [Gerora, Rafa Furnier batu zen taldera Gurrutxagaren ordez]. Lau bat urtean aritu zen oholtzan Andra kan, harik eta 2012an taldea desegin zuten arte. Baina orduan ere ez zion musika sortzeari utzi Cebrik. Harreman estua egin zuten ordurako Patxi Zabaleta eta biek eta The Brian Valeta Movement proiektua sortu zuten. "Entsegu osteko txarleta mistiko horietako batean erabaki genuen izena, hitz-jokoak egiten hasita", gogoratu du Zabaletak berak lagunari Facebooken eskaintako agur-mezuan. Musika esperimentala egiten zuten, inprobisazioan oinarrituta. Biko haren entseguetara lagunak ere batzen ziren, jakina. Ander Mujika, Jon Gurrutxaga, Iban Diego, Rafa Furnier... "Izugarrizko harremana egin genuen gure artean. Sinuösek antolatutako kontzertuetara ere sarri etortzen zen eta gomendioak ere sarri egiten zizkigun. Akordatzen naiz The Brian Valeta Movementen entseguetako batean nola esan zigun dardarak sentitzen hasia zela eskubiko eskuan. ELA Alboko esklerosi amiotrofikoa gaitza diagnostikatu zioten gero. Egia da musikaz asko irakatsi zigula, baina irakasten handiena beste bat izan zen: nola egin zion aurre ELA gaitzari", nabarmendu du Patxi Zabaletak. Eta bat dator Iriondo: "Eredugarria izan da". Gaixotu berritan Munletera itzultzeko gonbita egin zion Iriondok Cebrii. "Nahi nuen berarekin egotea, eta gainera, iruditzen zitzaidan asko zeukala emateko



Arg.: Les deux pieds dans la fosse

oraindik", oroitu du lagunak. *Chupacabras* diskoa grabatu zuten Inak, Anitak eta hirurek, eta Mendaron aurkeztu zuten. Huraxe izan zen Gararock jaialdiaren hazia. "Erabaki genuen gure bosgarren diskoa herrian aurkeztea, eta akordatzen naiz kontzertua amaitu berritan nola hasi zitzaizkigun Aingeru Gallastegi eta Josu Iriondo lagunak kaskoak berotzen. Garai bateko Garagauaren antzeko zerbaitekin egin behar genuela esanez hasi zitzaizkigun, eta damurik ez dugu. Eta bai, Cebri Gararock familiakoa izan dugu. Gaixotasunak laga zion guztian lagundu zigun, behar genuen material guztia laga zigun eta oraindik ere ondo gordeta dauzkat berak emandako alfonbrak-eta". Ez dute ahazteko laguna Gararocken

Gaur, ibilbide osoan lagun izan zituen musikariek parte hartuko dute Cebri day topaketan. Erlojuaren kontra jardun dira entsegutan, baina "ilusio handiz". Topaketan, Aintzane Gonzalezek, Cebriren emazteak, haren omenez sortutako kantua ere entzun ahal izango da. Topaketa gogoangarria egin nahi dute, eta ezerk ilundu ez dezan, zentzuz jokatzeko eta koronabirusagatik ezarritako segurtasun neurri guztiak zaintzeko eskatu diete antolatzaileek gerturatuko direnei.

▶ MAIALEN GURRUTXAGA

BERDINTASUN SAILEKO
ZINEGOTZIA

Emakumeen eta gizonen arteko berdintasunaren alde egiteko ahaleaginean, beste urrats bat eman nahi du Elgoibarko Udalak. Emakumeen txokoa zabalduko dute, lehen liburutegia zegoen lokalean, baina herritarrekin batera diseinatu nahi dute espazio hori zer izango den eta uztailaren 7ra arteko epea eman dute ekarpenak egiteko. Maialen Gurrutxaga zinegotziak eman ditu azalpenak.

- AINARA ARGOITIA -



“Ahizpatasuna lantzeko erreferentziazko gunea izango da emakumeen txokoa”

◆ Zer beharretatik abiatu zarete Elgoibarren emakumeentzako txokoa sortzeko?

Ikusten genuen herrian gauza asko antolatzen zirela emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna lortzeko eta erreferentziazko gune bat behar zela. Sororitatea edo ahizpatasuna lantzeko gunea izango da emakumeen txokoa [Erabaki gabe dago izena], emakumeen kezkei, nahiei eta erronkei bidea emateko gunea, eta bide batez, eginahal horretan ari diren emakumeak saretzeko espazioa izango da. Iruditzen zaigu herrian egiten den horri guztiari balioa emateko ere balioko duela, uste dugulako gaur leku ezberdinetan egiten diren ekintzak hor zentralizatzeak herriko elkarte eta eragile ezberdinen arteko harremanak indartzeko balioko duela. San Frantzisko kaleko 21. zenbakian zabalduko dugu lokala, lehen liburutegia zegoen lekuan, baina espazio haren erdia hartuko du.

◆ Zentralizatzeko hori onerako izango dela ulertu duzue, baina ez duzue arriskurik ikusten jende bat nekezago joateko emakumeen txokora kultur etxeko hitzaldi gelara edo ‘emakumeen’ etiketadun gabeko leku batera baino?

Ez dut uste. Nik uste dut bai Udalak eta bai gainerako eragileek ere positibotzat jo dutela zentralizatzeko hori. Dena den, emakumeen txoko bat sortzeak ez du esan nahi berdintasuna lantzeko helburuarekin egiten diren ekintza guztiak han egingo direnik. Espazio hark dituen ezaugarriengatik, gauza batzuk handik kanpo egiten jarraitu beharko dira. Gainera, erreferentziazko gune bat

izango da, baina ez gara han itxiko. Plazan egin behar dena, plazan egingo dugu gero ere. Eta gehiago ere bada: emakumeen txokoa izateak ez du esan nahi han egiten ez dena ez dela emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna lortzeko egiten. Gauza bat laga nahi dugu argi: gune irekia izango da, eta herritar guztiak izango dute lekua han.

◆ Irekia. Gizonentzat ere bai?

Han egingo diren gauza guztiak emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna lortzeko helburuarekin egin beharko dira. Hori da baldintza. Berdintasuna lortzea ez da emakumeen borroka soilik, jendarte osoarena baizik, eta iruditzen zait momentu honetan jendarte prest dagoela arduraz erantzuteko. Gizonek parte hartzea garrantzitsua da. Elgoibarren badaukagu hamar gizoneko talde bat hileroko batzen dena gizontasuna lantzeko. Epaituak izateko beldurrik gabe hitz egiten dute talde horretan euren bizipenez, eta etxean, lanean zein lagunartean hartzen dituzten rolez gogoeta egiten dute. Horregatik iruditzen zait berdintasuna lortzeko ahaleaginean diharduen orok, kezka hori izan eta gogoetarako prest dagoen edonork, izango duela lekua emakumeen txokoa.

◆ Ez genuen gizon talde horren berri.

Berdintasun Sailetik saiakera asko egin dira ezaugarri horietako talderen bat sortzeko, baina saiakerek emaitzarik ematen ez zutelarik ikusita, erabaki genuen zuzenean jotzea interesa izan zezaketen batzuegan. Hiru bilera egin dituzte, eta mo-

mentuz, diskrezioa eskatu dute, taldeak indar pixkat hartu arte, baina gu geu oso pozik gaude taldea ari delako gorputza hartzen. Nolanahi ere, herriko gizon guztiei irekia dago talde hori eta interesa duenak Berdintasun Sailarekin harremanetan jarri besterik ez du.

◆ Zeinen ekimenez sortu da emakumeen txokoa? Zein parte-hartze izango dute herriko eragileek?

Udalak espazioa jarri du, baina funtzionamendua gaur egungoa izango da. Udalak gaur antolatzen dituen ekintza asko han zentralizatuko dira, baina jakina, elkarteek ere antolatu ahal izango dituzte han hitzaldi, tailer, formazio-saio, afari-merienda, zine-forum eta abarrak, bai Udalaren dirulaguntzarekin zein gabe.

◆ Nolakoa izango da espazioa?

Emakumeen txokoa diseinatzeko prozesua zabaldu dugu eta ari gara herritarren ekarpenak jasotzen, baina premisa batetik abiatzen gara: erabilera askotariko lokala izango da. Lokalaren barruan espazioak zabaldu eta itxi egingo dira, beharren arabera. Lokala bera herrigunean dago, eta nahita. Kosta zitzaigun [Udalari] erabakitzea herriko elkarte bakoitzari zein lokal esleitzea, baina garbi geneukan emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna lortzea helburu estrategikoa dela, eta beraz, gune erreferentziazko bat sortzekotan, komeni zela herrigunean sortzea. Iruditzen zaigu kokapenak berak sekulako potentziala emango diola. Terraza ere izango du txokoak erabilgarri eta horrek ere aukerak zabalduko ditu.

◆ Zein fasetan dago proiektua?

Emakumeen txokoaren diseinuan herritarrek parte hartzea nahi genuen, eta horretarako prozesu bat abiatu genuen. Emakumeen txoko ezberdinen inguruko dokumentazioa ere batuta daukagu. Aztertu ditugu haien ezaugarriak eta haietako jardunak ere, baina guk Elgoibarren dauzkagun beharrei erantzungo dien gune bat nahi dugu eta horregatik abiatu genuen ideiak batzeko prozesua. Behar batzuk identifikatuta daukagu eta eskema antzeko bat badaukagu buruan, baina ikusi nahi genuen herriko elkarte eta norbanakoek zeren beharra sentitzen zuten eta nolakoa irudikatzen zuten emakumeen txokoa. Prozesu hori Emakumeen Kontseiluarekin eta herriko beste hainbat talde eta eragiletako emakumeekin adostu genuen eta jarri genuen martxan. Ideia bera Emakumeen Kontseiluari eta udaleko talde politikoei aurkeztu genien lehenengo, egun bateko tartearrekin, eta ondoren aurkeztu genien gainerako elkartei, ekarpenak egin zitzaizten. Haizeara, Narrutsikera, Loreak taldera, Batxilergoko Hezkidetza Taldera, Gaztelekura, Gurutze Gorrira, Caritasera eta Jubilatuen Biltokira jo genuen. Era berean, Udaleko sail ezberdinekin ere egin dugu lanketa hori, era transbertsal baten lan egitean ekarpen interesgarriak bildu ditzakegula sinisten dugulako. Azken batean, uste duguna da emakumeen txoko honen diseinuan denok parte hartuz gero, errazago izango dela gero denok geure sentitzea es-

“Gune irekia izango da, eta herritar guztiek izango dute lekua han”

pazio hori. Eta jakina, herritar norbanakoek ere badute parte hartzeko aukera. Batzar ireki bat egin genuen ekainaren 18an, baina COVID-19ak eragindako ezohiko egoera honetan, herritarren ekarpenak era telematiko edo elektronikoa jasotzeko bideak le-

henetsi genituen, eta uztailearen 7a arteko tartea jarri dugu ekarpenak biltzeko. Galdetegi bat sortu dugu horretarako eta labur.eus/elgoibarkoemakumeentxokoasortzen esegi, baina, e-posta bidez ere egin daitezke ekarpenak, berdintasuna@elgoibar.eus helbidera idatzita.

◆ Jaso al dituzue ekarpenak?

Ekainaren 18an egin genuen aurrez aurreko batzarrera hamahiru emakume agertu ziren, bi ez beste guztiak elkarte edo kolektiboren baten izenean. Etorri ziren Loreakeko ordezkariak, Narrutsikekoak eta Haizeakekoak eta prestutasuna agertu zuten guztiak, talde gisa, galdetegia betetzeko.

◆ Herriko emakumeek berdintasun politketan parte har zezaten sortu zenuten Emakumeen Kontseilua, eta gaur, elkarrikeretaz ere bada herriko emakumeen eta administrazioaren artean. Zer nolako osasuna du foro horrek? Zer nolako harremana du Narrutsik herriko talde feministarekin?

Oso ondo funtzionatzen duen foro bat da Emakumeen Kontseilua. Parte hartzen ari diren emakumeek modu indibidualen parte hartzen dute, baina modu kolektiboan biltzen dute emaitza. Ideiak botatzen dituzte, eztabaidatzen dute, baina sekula ez dira bestelako eztabaida eta interesetan nahasten eta nik esango nuke horregatik irauten duela denboran. Azpimarratzekoa da duten konpromisoa. Duela zazpi bat urte sortu zen talde hori, Bittori Zabala Berdintasun Saileko zinegotzi zela, eta hila-betero elkartzen gara. Taldea bizi-bizi dago, eta ia astero komentatzen ditugu gauzak taldean. Emakumeen Kontseilua talde irekia da, eta azaroan bertan, bi neska gazte batu zitzaizkigun Batxilergoko Hezkizeta Taldetik. Talde librea eta askotarikoa da eta horrek egiten du hain aberasgarria izatea. Hori bai, Udaletik sortutako foroa da eta sortu den lekutik sortuta, bistan da formalismo batzuk gorde behar direla, baina esango nuke Emakumeen Kontseiluan batzen diren pertsonak libre sentitzen direla eta ez dutela emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna lortzea ez den beste interesik. Garbi utzi nahi nuke interesa duen edonork atea zabalik daukala taldera batzeko.

◆ Noizko izango dugu emakumeen txokoa erabilgarri?

Datorren urte hasiera alderako. Uztailearen 7a arte ekarpenak bilduko ditugu, material hori landuko dugu gero irailerako, eta orduan aurkeztuko dugu jendeaurrean zer jaso dugun. Orduan zehaztuko dugu zer gauza diren egingarriak eta zer ez, eta zergatik. Gero hasiko dira obrak, edozelan ere, lokal horrek ez du obra handirik eskatzen.



Jon Basurto: "Ekonomikoki sendo dago C.D. Elgoibar; inbertsioak egiteko unea da orain"

C lub Deportivo Elgoibar futbol taldeak 2019-2020 denboraldiko kontuak onartu zituen, joan den ekainaren 26an Olaizaga kiroldegian egin zuten batzar orokorrean. Covid19ak eragina izan zuen batzarra egiteko moduan, hartu behar izan zituzten neurriengatik, eta kirol-taldeko diru kontuetan ere igarri dute pandemiaren eragina. Testuingurua aldekoena izan ez arren, kirol taldeak 11.177,67 euroko emaitza ekonomiko positiboa (Gastuak: 171.837 euro/ Sarrerak: 183.015 euro) lortu duela nabarmendu zuten zuzendaritza taldeko kideek bazkideen aurrean. Hain zuzen, Jon Basurtok gida-tzen duen zuzendaritzak aurten azken urtea izango zela esana zuen, baina egoerak behartuta ez da erreleboa emateko talderik aurkeztu, beste urtebetez jarraitzea erabaki dute. Azken lau urteetan egindako lanaren errepaso eta balorazioa egin dute. "Kluba kudeatzeko erronka onartu genuenetik, duela lau urte, barikarra izan da gure helburu ekonomikoa: epe luzera jasangarria den egitura sendotzea, autofinantzazioa oinarri duena eta diru-sarrerak irteerak baino handiagoak dituen. Eta bete ditugu gure helburuak, azken lau urteetan 50.580 euroan hasi baitira taldearen ondare irabaziak", zehaztu du klubeko ekonomia arduradun Iñigo Palominok. "Klubaren kudeaketa gure gain hartu genuenean, 38.397,73 euro zeuden bankuko kontu korranteetan. Gaur 100.186,49 euro daude. Etorkizunari aurre egiteko ekonomikoki sendo dago kluba".

Entrenatzaileak eta kirol materiala

Lortutako emaitza ekonomiko "positiboak" ezin direla zenbaki hutsetan gelditu diote taldeko arduradunek eta inbertsioak egingo dituzte, bereziki entrenatzaile/formatzaileen azpiegitura sendotzeko, "gabezia" daukatelako oinarritzkoa den alor horretan; eta,

baita kirol materiala berritzen ere. "Dirua azken finean pertsonen ongizatea hobetzera bideratu behar da, eta hortan gabiltza", esan du Palominok. Urteko gastuei dagokionez, soldatetara bideratu dute %30a (51.790 euro) eta kirol materialera %22a (38.149 euro). "Ahalegin berezia egin dugu aurten kirol materiala berritzen: txandal berriak talde guztientzat, entrenatzaileentzako arropak, e.a.". Diru-sarreretan Realarekin duten hitzarmenetik dator diru kopuru handiena, 44.400 euro: sarrera guztien %24a. Bazkideen kuotak dira bigarren diru iturri nagusia: 30.000 euro (%21). 600 bazkideetik gora ditu C.D. Elgoibarrek eta horien leialtasuna eskertu dute zuzendaritza taldekoek. Era berean, egoera ekonomiko zail honetan herriko enpresa eta komertzioek klubarekiko erakutsi duten konpromisoari aitortza egin diote, egin duten ahaleginagatik. Koronabirusak eragindako etenaren ostean, kuotetan %25eko deskontua egin zuten eta datorren urterako kuotak ez dituztela igoko aurreratu dute, eta, aldi berean, deskontuak ere (familia ugariak, e.a) bere horretan mantenduko dituztela.

Lau talde gehiago

Denboraldiak eman duenaren kirol balantzea ere egin du C.D. Elgoibarrek. Senior mailako emakumeen taldea sortu izana da azpimarragarriena ezohiko denboraldi honetan: "Gure helburu garrantzitsuenetariko bat bete dugu emakumeen taldea berriro martxan jarrita". Haundin gero eta elgoibartar gehiagok jokatzen dutela ere nabarmendu zuten, zuzendaritza honen oinarritzko helburuetako bat baita. Mintxetara gerturatzen den zale kopuruarekin ere gustura daude, eta emakumeen talderen partidak ikustera ikusle asko joan direla esan dute. C.D. Elgoibarrek 14 talde ditu gaur egun, duela lau urte baino lau talde gehiago eta 380 bat futbol jokalaria ari dira horietan.

Miren Zubeldia eta Joseba Elustondo Iraule orratzeko tontorrean (Arg.: Jon Garate). Beheko argazkian: Joseba Elustondo, Jon Garate eta Miren Zubeldia.

Irauleko orratzean, euskal eskalatzaile aitzindariak gogoan

Pandemiak, historiak, argazkilaritzak eta mendiak bat egin dute abentura honetan. Duela 65 urte eskalatu zuten estreinakoz Aizkorri mendikatean dagoen Irauleko orratza, 1955eko apirilaren 8an, hain zuzen ere. Club Deportibo Eibar taldeko hiru mendizale izan ziren: J. San Martin, I. Larreategi eta P. Agirregomezkorta. Teknika berezia erabili zuten igoera gauzatzeko, tirolina moduko bat. Handik hilabetera, 1955eko maiatzaren 22an, behetik gorako estreinako eskalada egin zuten Donostiako Hamaikak-Bat taldeko Lausarreta eta Domecq mendizaleek, *Pyrenaica* aldizkariko kronika zahar batean jasota dagoenez. Pandemia betean, konfinamenduaren gogorrean, izan zuten Irauleko ipar horman dagoen orratzera eginiko lehen igoera honen berri Joseba Elustondo eta Jon Garate elgoibartarrek eta Miren Zubeldiak. Abentura gosez eta kuriositateak jota, maiatzaren 31n gerturatu ziren hiru eskalatzaileak orratza dagoen lekuraino. Garaiko idatzien arabera, Irauleko orratzean eskalada libre ezinezkoa zen lehen metroak igaro ondoreneko helduleku eskasia zela-eta, hortik aurrera teknika artifiziala erabili behar zelako. Garai hartako iltze zaharrak eta gaur egungo materiala uztertuz, luze batean eta teknika libre erabilita, gailurrera iritsi ziren hiru eskalatzaileak. Baina ez ziren igotzearekin konformatu. Orratzaren koka-pena kontuan hartuta, egunsentiko lehen argi izpiekin igoera errepikatzea interesgarria izango zela pentsatu zuten eta asmo horrekin joan ziren berriro ere ekainaren 20an leku berera. Oraingoan, Xabi Smithy Mujika, Asier Izagirre eta Jon Lekuona *Leku* lagun zituztela joan ziren. Ilunabarrean laga zuten soka finkatuta. Iraule (1.507 metro) mendiko tontorrean vivac "gogoangarri" bat egin eta gero, egunsentiko "argi festa" probestu zuten igoera ahaztezinagoa izan zedin. Atera zituzten argazkietan ere igarri da egunsentiko argiaren magia. Ausardia, trebezia eta argazkilaria trebezia azaleratzen dira irudi horretan. Sare sozialetan ere aho zabalik geratu dira erabiltzaileak, bai irudiarekin eta baita eginiko igoerarekin. Igoera historiko baten protagonistetako bi elgoibartarrak izan dira.





Mendaro

► Ezohiko udan, ezohiko udalekuak

Uztailaren 1 arekin batera hasi zituzten eguaztenean udalekuak Elgoibarren eta Mendaron. Baimen-oria beteta eta etxean tenperatura hartuta aurkeztu ziren umeak, baina hala ere, hezitzaileek banan-banan hartu zieten berriro tenperatura. COVID-19aren pandemiak segurtasun neurriak zorroztera behartu ditu antolatzaileak, bai eta aisia eskaintza bera egoera berrira egokitzera ere. Taldeak txikiagoak dira aurten (hamar bat lagunekoak) eta ez dira euren artean nahastuko, kontaktu fisiko handiko ekintzak saihestuko dituzte, ekintzak aire librean egingo dituzte, eta haur bakoitzak bere motxila eraman beharko du, musukoa eta gel hidroalkoholikoa barne, nahiz eta begiraleek ere izango duten oinarritzko materiala. Elgoibarren, 5 eta 12 urte bitarteko 94 ume eman dute izena [Lehenengo txandan, 83k eta bigarren txandan, 55ek] eta Mendaron, 40k [33k lehenengo txandan, eta 29k, bigarrenengan]. Elgoibarko Udalak (Ludoteka zerbitzuzaren bidez) eta Elgoibarko Izarra Euskaltzaleon Topaguneko Atxutxia-maika Sailak antolatu dituzte Elgoibarren elkarlanean eta Mendaroko Udalak Mendaron, baina Elgoibarko Izarrak kudeatuko ditu.





"Ortzadarra eguzkiarekin"

Amaia
Mendia
Arriola,
6 urte,
Elgoibar



"Gaztelu beltza"

Unax
Romera
Etxaniz ,
5 urte,
Elgoibar



LANA.....
Eskaerak

Adinekoak edo umeak zaintzeko eta garbiketa lanak egiteko prest nago. Etxeko langile moduan edo orduka. Esperientzia daukat eta berehala hasteko prest nago.
 ☎ 632 415 374

Adinekoak zaintzeko prest nago, orduka edo etxeko langile moduan. Asteburuetan eta ospitalean ere bai. ☎ 631 465 603 (Carlos)

16 urteko neska elgoibartarra naiz eta umeak oso gogoko ditut. Uztailean umeak zaintzen egingo nuke lan gustura. ☎ 638 863 614

Adinekoak edo umeak zaintzeko eta garbiketa lanak egiteko prest nago. Etxeko langile moduan ere bai. ☎ 643 115 699

Adinekoak edo umeak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko prest nago. Orduka.
 ☎ 632 820 901

Adinekoak zainduko nituzke, orduka edo etxeko langile moduan. ☎ 698 865 924

Adinekoak zaintzeko prest nago, etxeko langile moduan. ☎ 631 121 148

Haur Hezkuntza eginda daukat, euskalduna naiz eta haurrak zaintzen egingo nuke lan udan. ☎ 689 618 820

Adinekoak zaintzeko eta etxeko garbiketarako egiteko prest nago. Esperientzia daukat eta berehala hasteko prest. ☎ 632 687 583

Adinekoak zaintzeko eta etxeko garbiketa lanetan aritzeko prest nago, orduka edo etxeko langile moduan. Erabateko prestutasuna.
 ☎ 631 470 600

Adinekoak zaintzeko eta etxeko garbiketa lanetan aritzeko prest nago, orduka edo etxeko langile moduan.
 ☎ 631 895 039

Adinekoak zaintzeko prest nago, goizez. Euskalduna naiz.
 ☎ 617 571 210

Edozein lan egiteko prest nago, goizez 8:00etatik 11:00etara eta asteburuetan edozein orduan.
 ☎ 632 893 515

Eraikuntzan, adinekoak zaintzen edo garbiketa lanetan jardungo nuke.
 ☎ 632 600 522

Haur Hezkuntzako ikaslea udan umeak zaintzeko prest. Euskalduna.
 ☎ 684 221 398

Udan umeak zaintzeko prest nago. Euskalduna naiz.
 ☎ 687 792 418

ETXEBIZITZAK.....

Etxebizitza salgai, duplexa, Bernardo ezenero kalean. 82 metro koadro ditu eta gela gutxiak kanpoaldera ematen dute, hegoalderantz. Bista onak ditu. Trastelekua, garaie itxia eta igogailua.
 ☎ 685 722 131- 635 715 503

Inmobiliaria batek etxeetan garbiketa lanak egiteko pertsona bat behar du.
 ☎ 688 615 600 (9:00-18:00)

Bi edo hiru logelatako etxea hartuko nuke alokairuan. Premiazkoa da. Erreferentziak ditut.
 ☎ 681 212 449

Etxea alokatzen dut Kantabrian, Valle de Ruesga herrian, laredotik 13 kilometrotara. 4 logela, eta bi komun. Zortzi laguntzako modukoa. ☎ 688 615 600

BESTELAKOAK.....

Lur-zati bat erosi nahiko genuke baratze bat eta txabola txiki bat egiteko. Elgoibarren bertan, edo, Elgoibartik aparte badago ere, ez zaigu inporta. ☎ 696 098 042

Lur saila erosiko nuke, Elgoibarren edo inguruetan. ☎ 620 710 139

Sigmako elkarte gastronomikoak bazkideak behar ditu. Informaziorako: <https://eulogio-estarta.blogspot.com/> edo <https://www.facebook.com/eulogioestarta/>

Merkatu txikiko iragarkiak hiru astez argitaratzen ditugu. Salmenta eta alokairu iragarkiak ordaindu egin behar dira. Etxebizitzak, garaieak eta lokalak: 18€ (alokairua) - 22€ (salmenta). Autoak salteza: 18€ . Bestelakoak: 10€ . Iragarkiari erretratua jarriz gero, 6€ gehiago ordaindu behar dira.

BAZKIDEENTZAKO PREZIOAK:

Etxebizitzak, garaieak eta lokalak: 15€ (alokairua) - 20€ (salmenta). Autoak salteza: 15€. Bestelakoak: 8€. Iragarkiari erretratua jarriz gero, 5€ gehiago ordaindu behar dira.



Consejo Vasco de Colegios de Administradores de Finanzas
Euzko Finantza Administrazioen Kontseilua



ROSA Ma PINTADO

Etxaldean Administrazioarako-Gradu ikasketen arduraduna Alcala de Henareseko Unibertsitatean, eta Gipuzkoa, Bizkai eta Arabako, Errioxako eta Kantabriako ikastetxeetan. Zuzenbidean lizentziatua. Kolegiatu zenbakia: 749

660 969 679
rosapf@telefonica.net

Jakin nahiko nuke obra berri bat zer den eta zein baldintza bete behar dituen Jabetza-Erregistroan inskribitu ahal izateko

Obra Berriaren Deklarazioa eskritura bat da funtsean, zinean lursail baten deskribapena aldatzen den, egin den obra berria jasota gera dadin. Eskritura hori emateko, ezinbestekoa da Obra Baimena izatea eta baimen hori eskatu ahal izateko aurkeztu zen proiektua aurkeztea. Horrez gain, obra zuzendu duen arkitektoak honako kontu hauek ere ziurtatu behar ditu.

1. Obra bukatu bada, tekniko horrek ziurtatu behar du obra baimena eskatzeko erabili zen proiektuaren arabera egin dela eta eskrituran jasotakoa bat datorrela egindako lanarekin eta aipatutako proiektuarekin.
2. Obra egiten ari badira, teknikoak ziurtatu behar du eskrituran jasotako deskribapena egiaz hala betetzen dela eta bat datorrela proiektuan jasotakoarekin.

Bi kasuetan, teknikoak notario aurrean agertu behar du eta han sinatu behar ditu ziurtagiriak eta dagokion eskritura. Baimen edo proiekturik gabe egin diren obretan, arau bereziak aplika daitezke.


AHOLKUA: Obra Berriaren Deklarazioa obra horren balioaren %0,5eko egintza juridiko dokumentatuen gaineko zergari lotua dago.



AHOLKULARI KOLABORATZAILEA
San Bartolome, 2



Argazkiak eguazten eguerdia (12:00ak) baino lehen ekarri behar dira BARRENEko bulegora, edo barren@elgoibarkoizarra.eus e-postara bidali.



Zorionak, **Mikel Lartain**, asteartean 10 urte beteko dituzulako. Muxu handi bat familiakoen partez. Asko maite zaitugu.



Zorionak, atzo 10 urte egin zenuelako, **Aior!** lkaragarri maite zaitugu familia osoak.



Zorionak, **Libe**, gaur 4 urte bete dituzulako. Jarraitu beti bezain alai eta jator. Muxu potolo bat familiakoen eta bereziki, Aimarren partez.



Zorionak, neska handi, asteartean 6 urte egin zenuelako. Etxekoen partez.



Zorionak, **June**, uztailaren 2an 10 urte bete zenituelako. Muxu handi bat etxekoen partez.



Zorionak, **Nahia!** 12 urte dagoeneko! Jarraitu horren jator eta alai, maitea! Familia guztiaren partez, muxu txuak.



Zorionak, **Lara**, igandean 6 urte beteko dituzulako, eta zorionak, **Danel**, abuztuaren 7an 8 urte beteko dituzulako. Muxu asko familiako guztien partez.



Zorionak, **Jon** eta **Mikel**, zuen urte-betetze egunean, familia osoaren partetik. Asko maite zaituztegu, txapeldunak.

Erretratu bakarreko agurra: 4'50€.
Argazki bikoitza: 7€. Hirukoitza: 9€. Hiru lagunetik gorako taldeak: 15€
ELGOIBARKO IZARRAKO BAZKIDEENTZAKO PREZIOAK
Erretratu bakarreko agurra: 3'50€.
Argazki bikoitza: 6€. Hirukoitza: 8€. Hiru lagunetik gorako taldeak: 12€
Argazkiak eguazten eguerdia (12:00etarako) baino lehen ekarri behar dira BARRENEko bulegora, edo barren@elgoibarkoizarra.eus e-postara bidali.



Erretratu zaharrak behar ditugu

Atal honetan argitaratzeko moduko argazkirik baldin badaukazu, bi aukera dituzu guri helarazteko:

e-posta:
barren@elgoibarkoizarra.eus
Barreneko bulegora ekarri:
Alta Agirre Kulturgunea, 3, 3. ezk.





GOBERNATZEKO PREST

MIREN GORROTXATEGI
Lehendakari hautagaia
<http://mirengorrotxategi.eus>

3 BARIKUA

17:30-20:30 Odol ateratzeak Mendaron, ikastolan. Txanda hartzeko telefono honetara deitu, 15:00etatik aurrera: 688 780 471

19:00 Cebriday lagun arteko topaketa. Juan Carlos Cebrian musikarirari omenaldia, Mendaron, Azpilgoetako Santakurutz parkean.

21:30 Bideo foruma: 'Café Irlandés'. Kultur Etxeko hitzaldi gelan. Antolatzailea: Haizea emakume taldea.

6 ASTELEHENA

19:00 Manifestazioa: 'Lehen Arretan murrizketarik ez'. Duintasuna-Gaurgeroa pensionisten taldeak deituta, Kalegoen plazatik. Maskara eraman beharko da.

Ekainean hildakoak

Antonio Perez Muñoz.

Ekainaren 1ean hil zen 90 urte zituela.

M^{re} Luisa Abarrategi Leaniz-Barrutia.

Ekainaren 10ean hil zen 92 urte zituela.

Margarita Aranberri Mendizabal.

Ekainaren 17an hil zen 88 urte zituela.

Andres Odriozola Unchalo.

Ekainaren 17an hil zen 94 urte zituela.

Sabina Sopelana Gonzalez.

Ekainaren 20an hil zen 85 urte zituela.

Tomas Astigarraga Muguerza.

Ekainaren 26an hil zen 69 urte zituela.

Juan Irureta Gabilondo.

Ekainaren 26an hil zen 87 urte zituela.

Aitor Juaristi Gomez.

Ekainaren 30ean hil zen 39 urte zituela.

Hileta-mezak uztailaren 3tik 20ra bitartean

Carmen Ferrer Ruiz

2020ko apirilaren 11n hil zen, 85 urte zituela.
Hileta-meza, uztailaren 3an, Elgoibarren, 19:00etan.

Begoña Altuna Leyaristi

2020ko maiatzaren 4an hil zen, 85 urte zituela.
Hileta-meza, uztailaren 6an, Elgoibarren, 19:00etan.

Jose Barandiaran Osoro

2020ko maiatzaren 15ean hil zen, 83 urte zituela.
Hileta-meza, uztailaren 8an, Elgoibarren, 19:00etan.

Juan Zinkunegi Iza

2020ko apirilaren 15ean hil zen, 82 urte zituela.
Hileta-meza, uztailaren 10ean, Elgoibarren, 19:00etan.

Nicolas Arrieta Arrieta

2020ko maiatzaren 16an hil zen, 78 urte zituela.
Hileta-meza, uztailaren 13an, Elgoibarren, 19:00etan.

Matilde Urizar Garitaonandia

2020ko apirilaren 12an hil zen, 92 urte zituela.
Hileta-meza, uztailaren 15ean, Elgoibarren, 19:00etan.

Maria Etxabe Ariznabarreta

2020ko maiatzaren 18an hil zen, 88 urte zituela.
Hileta-meza, uztailaren 17an, Elgoibarren, 19:00etan.

Jose Luis Eguidazu Lejardi

2020ko maiatzaren 23an hil zen, 71 urte zituela.
Hileta-meza, uztailaren 20an, Elgoibarren, 19:00etan.

Botika ordutegiak 09:00 - 13:00 / 16:00 - 20:00

GUARDIAK

Egunez: 09:00-22:00

Iluntzean: 20:00-22:00

Larunbatak: 9:00-14:00 (*)


3 BARIKUA	4 ZAPATUA	5 DOMEKA	6 ASTELEHENA	7 MARTITZENA	8 EGUAZTENA	9 EGUENA	10 BARIKUA
Egunez *Oruesagasti	Egunez Yudego	Egunez Yudego	Egunez *Oruesagasti	Egunez Barrenetxea	Egunez *Ibañez	Egunez Garitaonandia	Egunez Arriola
Iluntzean Barrenetxea	Iluntzean Yudego	Iluntzean Yudego	Iluntzean Garitaonandia	Iluntzean Barrenetxea	Iluntzean Arriola	Iluntzean Garitaonandia	Iluntzean Arriola

* Fernandez:
Herriko enparantza, 4
Garagartza (Mendaro)
943 756 142

* Ibañez:
Rekalde, 1 (Soraluze)
943 751 638

* Oruesagasti:
Kalebarren, 9 (Soraluze)
943 751 384

Urte guztian, gabez: 22:00-09:00
Barandela - Ziriako Agirre kalea, 4 (Eibar)
943 206 984



II. URTEURRENA

Miren Unzueta Mendicute

2018ko uztailaren 3an hil zen, 95 urte zituela.

Amaren maitasuna beti gogoan.

Etxekoak



IX. URTEURRENA

Maria Arakistain Iriondo

2011ko uztailaren 4an hil zen

Haien oroimenez urteurreneko meza izango da, domekan,
uztailaren 5ean, 12:30ean Mendaroko Garagartzako parrokian.
Joango zaretenoi alde zuretik eskerrak.

I. URTEURRENA

Benancio Muguruza Lizaso

2019ko uztailaren 3an hil zen.



I. URTEURRENA


Gloria Aranguren Urkidi

"Beraseta"

2019ko apirilaren 28an hil zen, 81 urte zituela. Haren oroimenez
I. urteurreneko meza izango da, domekan, uztailaren 5ean,
11:30ean Elgoibarko Bartolome Deunaren eliz-parrokian.
Joango zaretenoi alde zuretik eskerrak.

**Urtebete joan zinela
gure artetik
zure ahotsa eta irribarrea
itzaldu zenetik
egunero zaude gurekin
zauden tokitik
familia zaintzen orain ere
izkin batetik.**

Etxekoak



I. URTEURRENA

Arrate Aranguren Urkidi

"Beraseta"

2019ko uztailaren 2an hil zen, 72 urte zituela.

**Zurekin amets, zurekin negar,
zurekin barre, zurekin musu.
Gutako bakoitzean bizirik jarraitzen duzu.
Gugan beti, maite zaitugu.**

Etxekoak



2020ko elektrogailuen **Renove Plana**

130€ra arteko dirulaguntzak!
Agortu arte.



MILARBIRE

Ubitarte, 11 - 943 741 487 - bire@milar.es



LEHIOAK
SORALUZE
Altzairua - Poliuretanoa - PVC

Fabrika:
Olasope kalea, 66
Olaso industrialdea
Tel./Faxa: 943 742 103

Erakusketa:
Santa Ana kalea, 8
Tel.: 943 743 634
20870 Elgoibar

RENOVE PLANA leihoetan



Zatoz aurrekontua eskatzera.

1.500€ra arteko dirulaguntzak!